

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA  
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA



# ETXETIK PLAZARA

## BIOETXEAK



**SARIA:**  
ETXALARKO  
HERRIKO  
OSTATUAN  
BI LAGUNENTZAKO  
OTORDUA

2020ko EREAROA **168. ALEA**



# IRAKURLAN

## ETXE OSASUNTSUAK: BIOERAIKUNTZA



168. alea duzu begien aitzinean duzun Etxetik Plazara aldizkari hau. Gure egitasmoa ezagutzen duzuenok badakizue maiz paratzen dugula arreta naturaren inguruan edo jasangarritasuna sustatzen duten gaietan. Ideia horri jarraiki, oraingoan, poliki-poliki oihartzuna lortzen ari den gai batekin gatozkizu: bioeraikuntza.

Egungo ohiko eraikuntzatik aldendu, eta inguruarekiko errespetuan finkatzen du ardatza bioeraikuntzak. Hala, modu edo filosofia horretan oinarrituta eraikitako etxeek, eraikin tiki zein handiagoek, honako printzipio hauek biltzen dituzte beren baitan: energetikoki efizienteak dira, material naturalez eraikiak, jasangarriak eta bertan bizi direnentzat osasungarriak.

Alde batetik, erran bezala, energetikoki efizienteak dira. Horrek erran nahi du ura eta energia garbiaren (berriztagarriaren) auto-hornikuntza sistemak erabiltzen dituztela: euri-ura biltzeko sistemak, eguzki-plakak, haize-errotak... Eta, ahal den neurrian, produktu eta eremu kutsagarriak saihesten dituzte.

Bertzetik, material naturalak aipatu ditugu; izan ere, lastoa, egurra, buztina, lurra, karea edota kortxoa bezalako materialak erabiltzen dira mota horretako eraikuntzetan. Beharbada, baten bati hiru txerritxoen ipuina etorriko zaio gogora: otsoak aise bota zituen beheiti lastozko eta egurrezko etxeak putz eginez, eta adreiluzkoa, aldiz, ez zuen suntsitzea lortu, sendoena baitzen. Zorionez, hori ipuina baino ez da, eta errealtateak bertzelako bizipen batzuk erakusten dizkigu. Errate baterako, lastoz egindako blokeak erabiltzen ditu bioeraikuntzak etxe sendoak egiteko, lastoa material isolatzaile hagitz ona baita. Horretaz gain, beroa ongi gordetzen du, eta eraikuntzako giroa hozten delarik, gordetako beroa bueltatzeko ahalmena du. Lastozko fardo edo bloke horiek gisuz, buztinez edo egurrez estali ohi dira, ondotik.

Osasungarriak ere badirela erran dugu; hau da, ez dute eritasunik sortzen bertan bizi direnengan. Izan badira "etxe eriak" deiturikoak, eraikitzeo erabilitako materialak direla, beren orientazioa dela edo bertze hamaika faktore dela, eritasunak sortzen dituztenak. Bada, bioeraikuntzak, horien aldean, biztanlearen osasuna bermatzen du.

Baina, eraikuntza mota hau ez da inongo modernitatea. Egiazki, Euskal Herrian, halako eraikin andana dugu gure mendietan: baserriak. Pixka bat pentsatzen badugu, ohartuko gara bioeraikuntzari atxikitzen zaizkion kontzeptu guziak biltzen dituela gure arkitektura tradizionalak: baserriak material naturalez eginak dira, eta orientazioa nahiz kokapena espresuki pentsatuak daude eguzkiaren beroa aprobetxatzeko eta iparreko hotzaz babesteko. Beraz, finean, bioeraikuntza arkitektura tradizionala berreskuratzean datza, betiere, garaiko elementu moderno jasangarriak integratuz.

Bukatzeko, arrauna metaforatzat hartuta, Oteitzak zioena ekarriko dugu gogora: gibeleraginez, aitzinera egitea. Horixe da, hondarrean, bioeraikuntza.

# LAN ETALAN



Lastozko etxeak, gisuzko paretak, egurrezko egiturak... ZEREZKO deklinabide kasua ageri zaigu hitz bikote horietan guzietan; hau da, zer materialez eginak dauden erraten da **-(e)zko** bukaeraren bidez. Gai honek eman dizkigun adibideei segituz, deklinabide kasu horixe bera landuko dugu atal honetan.

ZEREZ deklinabide moduaren familiakoa da ZEREZKO. Horregatik, antzera funtzionatzen dute bi kasuek. Honako adibide hauek ikusita, hobeki konprenituko duzu bien arteko aldea:

- Bloke horiek buztinez eginak daude -----> Bloke horiek buztinezkoak dira.
- Paretak kortxoz estalita daude -----> Paretetako estaldura kortxozkoa da.
- Horma lurrez egin dago -----> Lurrezko horma da.

Hurrengo ariketatxo honetan, azpian aurkituko dituzun materialei ZEREZKO kasua aplikatu beharko diezu, ondotik heldu diren esaldietan txertatzeko. Ea zer moduz egiten duzun!

- |            |            |          |
|------------|------------|----------|
| - Zur      | - Burdina  | - Kotoi  |
| - Plastiko | - Altzairu | - Harri  |
| - Marmol   | - Kristal  | - Artile |

- 1) Lehen, edari guziak ..... botiletan saltzen ziren. Orain, aldiz, gehienak ..... botiletan datoz.
- 2) Altzairu zaharrak aldatu, eta ..... ohe, armairu eta apal berriak jarriko ditut gelan.
- 3) Moskuko metroko hainbat tarte Almandozko ..... omen dira.
- 4) Lesakako Laminaciones fabriketan, ..... bobinak egiten ziren.
- 5) Kirola egiteko, ..... kamisetak hagitz aproposak dira.
- 6) Gure baserrietako ..... paretak mugikorraren estaldurarekin arazoak ematen dituzte.
- 7) ..... zartaginek betiko irauten dute.
- 8) Saran badago ardiak ilea aprobetxatu eta ..... produktuak egiten dituen lantegia.





# BITXILOREAK

Bioeraikuntza ez da berria. Unibertsala dela erran dezakegu, herrialde guztietan (1)**hamaika** adibide aurkitzen ahal baitugu: Altsazian, Balin, Murtzian...Gainera, egun, enpresa aunitz erai-kuntza mota horren aldeko apustua egiten ari dira, eta, horretarako (2)**eraldutzen** ari dira. Hurrengo testuan, gure herriko hainbat adibideren berri emanen dizuegu, baina, kasu eman; testuko hitz batzuk aukeratu ditugu, eta behean erranahi bera duten hitzak paratu ditugu, zuk parekatzeko.

**ERNE, SARIRAKO!**

A - ANTZINAKOAK, ASABAK

B - LEKUA, TOKIA

C - XEHATU, IRINDU

D - MAKINA BAT, PILA BAT

E - ALTXATUTAKO, JASOTAKO

F - ITXURALDATZEN, ANTZALDATZEN

G - OHARTZEKO, KONTURATZEKO

H - AUKERA, BETA, ABAGUNE

I - GARBITZEKO

J - MOZKINTZEKO, ESPLOTATZEKO

K - BULTZATZEN

L - HELBURU, JOMUGA

Erran bezala, Euskal Herrian ere adibide aunitz topatzen ahal ditugu: Noaingo Zentzumen parkea, Berriozarreko gaztetxea, Usango etxebizitzak, Barañaingo gaztetxea, Agotzenea, Arbizuko kanpina... Dena den, bioeraikuntza gurean ez da berria: atzera jo behar dugu gure (3)**ar-basoek** egiten zutenaren balioaz (4)**jabetzeko** eta berreskuratzeko. Eskoriatzako *Soratz* baserria adibideetako bat dugu: XV. mendekoa da, eta, gaur egun, zaharberrituta dago. Kokape-na, orientazioa eta isolamendu naturalak ditu (kortxo naturala, egur zuntza eta zelulosa, ez du hormigoizko altzairurik...). Leihoen tamainak orientazioaren arabera eginak dira, urtarotetara egokitzeko. *Azaliatxo* etxea (Gipuzkoako Soraluze) dugu bertze harribitxi bat. Lasto fardelekin zaharberritu da, eta, bertan, artilea, egurra, buztina, karea... erabili dira. Egitura bereziaz gain, ura (5)**arazteko** sistema ekologikoa dute.

Nafarroan ere hainbat adibide ditugu, eta bi azpimarratu behar ditugu. *Agotzenea* eta Arbizuko kanpina. *Agotzenea* Zubiri eta Leranotz artean dugun ekohezkuntza (6)**gunea** da. Han, bioeraikuntza zer den erakusten da. Mikro-kooperatiba horrek diru-laguntza andana jaso du (Europatik, Nafarroako Gobernutik), baita bazkideen aurrezkiak ere. Formakuntza du (7)**xede** nagusia, baina zentroa eta alokairuko etxeak zabaltzeko asmoa ere badute, errentagarri izateko.

Arbizuko kanpina iraunkortasuna, bioeraikuntza, bioklimatizazioa eta energia berriztagarrien erabilera (8)**sustatzen** duen adibide ederra da. Eraikinak lasto eta egurrez eginak dira; isolamendu ona eta kontsumo energetiko urria du. Bungalowak egurrez (9)**eraikitako** etxe biokli-matiko txikiak dira. Sandwich modukoak dira, material birziklatu eta naturalak erabilia (ardi artilea eta galtzen kotoi birziklatua erabilia, esate baterako). Ekoherrixken eredia segitzen dute, ekoteknologia, ekoenergia eta ekokontsumoa bultzatuz. Baliabide naturalen erabilerak bertako bultzatzaileak hainbat ohitura eta jarrera aldatzera eraman ditu: erraterako, gizakiok (10) **sun-tsitu** ditugun inguruak konpontzera eta berreraikitzen. Azpimarratu behar da bertaratzen diren bezeroei baratzeak (11)**ustiatzeko** aukera ematen dietela, sendabelarren mundura hurbiltzeko aukera bikaina ere badute, baita ingurune horretan bizi diren izaki bizidunak ezagutzeko (12)**parada** ederra ere.





# ERRANETIKERRANERA

Bioeraikuntzaren inguruko informazioa eta bitxikeriak plazaratu ditugu bi testuetan, eta bertan, lastoa, agotza, baserria, buztina eta bertze hainbat hitz ikusi ditugu. Guk batzuk hautatu eta horien inguruko esaera zahar eta esamolde batzuk bildu ditugu. Zenbait kasutan, erranahiak parekatu beharko dituzu (A multzoa) eta bertze batzuetan, osatu (B multzoa).



## A) ESAMOLDEAK

- 1.- Anaiaren begian lastoa ikusi. \_\_\_\_\_ Besteen akatsak ikusi. \_\_\_\_\_
- 2.- Lastoa ere ez merezi. \_\_\_\_\_
- 3.- Agotza saldu eta astoa erosi. \_\_\_\_\_
- 4.- Lastozko isatsa duenak, atzera begira. \_\_\_\_\_
- 5.- Buztina heze denean, moldatu beharra. \_\_\_\_\_
- 6.- Eguzkiak gurina urtzen eta buztina gogortzen. \_\_\_\_\_
- 7.- Senarra, buztinezkoa ere ona. \_\_\_\_\_
- 8.- Lastoa atera. \_\_\_\_\_
- 9.- Lastoa janarazi. \_\_\_\_\_

- A.- Zerbaitengatik ahul dena beti erne egon beharra minik ez jasotzeko.
- B.- Gogor jo.
- C.- Besteen akatsak ikusi.
- D.- Ezer ez merezi.
- E.- Txikitan umeak hezi behar, handitan ez dago erremediorik.
- F.- Negozio txarra egin.
- G.- Hobe horrelakoa, senarrik gabe baino.
- H.- Norbaiti planto egin.
- I.- Eguzkiak berotzen du argizaria eta gogortzen lurra.

Baserría euskararen gordeleku dugu. Halaber, zaharrentzat, baserría uztea hiltzea dela entzun izan dugu. Ondorengo esamoldeen hasiera duzu bukaerarekin lotu beheko erantzunekin.

## B) ESAERA ZAHARRAK

- 10.- Ura fresko edukitzeko txarra zilarra... \_\_\_\_\_
- 11.- Baserri txarrak... \_\_\_\_\_
- 12.- Zikina hirietan... \_\_\_\_\_

- J.- irina baserrietan.    K.- ona buztinezko pitxarra.    L.- errota urruti.





# JOLAS NAHAS

## HIZKI-ZOPA

Bioeraikuntzari buruzko hiztegi dezente ageri zaigu ale honetako testuetan. Hori dela eta, ariketatxo honen bidez, hitz berri horietako batzuk hautatu ditugu errepa-satu eta hobeki ikasi ahal izateko. Bi eginkizun izanen dituzu: lehenbiziko, definizioak hitz bakoitzarekin lotu beharko dituzu, eta, ondotik, hizki-zopa saltsan solas horiek harrapatu.

1. Bioeraikuntza
2. Osasuntsu
3. Jasangarri
4. Iraunkor
5. Eraikin
6. Isolatu
7. Zaharberritu

- a. Gaurko eta etorkizuneko belaunaldiek behar dituzten baliabide naturalak agortzeko arriskuan jartzen ez duena.
- b. Etxe zahar baten konponketaren akzioa.
- c. Osasunerako ona dena.
- d. Modu jasangarrian eta material naturalez egindako eraikina.
- e. Material erresistenteekin egindako eraikuntza, bereziki etxebizitza eta horrelako beste erabilera batzuetarako izaten dena.
- f. Etxe barrenerat hotza ez sartzeko egiten dena.
- g. Luze irauteko pentsatua dagoena.

R X I R A U N K O R K W K Z  
G D H R V W K B R X O C L A  
M C V I B J Z I Y S B I A H  
Y J M K O T F O Q W D S F A  
F A R L S A Z E O U X O E R  
G S A M A A R R N K T L L B  
L A U D S D G A A G M A W E  
I N G P U G Q I Z O N T V R  
E G F X N O J K S T L U L R  
Q A A N T Y O U V F U U W I  
H R J F S C Z N M G N B Z T  
P R E O U V Z T I P P M T U  
K I S S W U W Z Y K X E V U  
A N A B R E R A I K I N Q J

# ERANTZUNAK



## LAN eta LAN (3. or.):

1- kristalezko/plastikozko; 2- zurezko; 3- altzairuzko; 4- marmolezkoak;  
5- kotoizko; 6- harrizko; 7- burdinazko; 8- artilezko.

## ERRANETIK ERRRANERA (5. or.):

ESAMOLDEAK: 1- C; 2- D; 3- F; 4- A; 5- E; 6- I; 6- G; 8- B; 9- H

ESAERA ZAHARRAK 10-K 11-L 12-J

## JOLAS-NAHAS – Hizki-zopa (6. or.):

1- d; 2- c; 3- a; 4- g; 5- e; 6- f; 7- b

## 167. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- a; 2- b; 3- b; 4- c; 5- b; 6- a; 7- c; 8- b; 9- c; 10- c; 11- b; 12- a; 13- b; 14- a; 15- a

## ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **4. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabaz-learen izena agertuko dira.


SARIA:

**Etxalarko  
HERRIKO OSTATUAN  
bi lagunentzako otordua**

167. aleko irabazlea:  
**Maialen Irigoien Fagoaga  
Lesakakoa**

## ETXETIK PLAZARA liburua DEBALDE!!

**Eska ezazu,  
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko  
IKA euskaltegietan**



OHARRA: erantzunak uztailaren 10a baino lehen bidal itzazu.



## SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (4. OR.):

1 - _____	5 - _____	9 - _____
2 - _____	6 - _____	10 - _____
3 - _____	7 - _____	11 - _____
4 - _____	8 - _____	12 - _____

EP 168 (2020/06)





# UDAN ere, EUSKARAREN KILIKA!



• **DONEZTEBEn**, abuztuan,  
**EGA-C1 ikastaroa**  
**AURREZ AURREKOA** edo **ONLINE**  
(abuztuaren 3tik 28ra)

**Bortzrietan edo Malerrekaren erroldatua  
bazaude, matrikula DIRUZ LAGUNDUTA!**

Informazioa eta matrikulak:

- Doneztebeko EGA-C1, 948 451 555 [malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)

[ikaeuskaltegiak.eus](http://ikaeuskaltegiak.eus)

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta  
Malerrekako IKA  
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak  
eta maketazioa:

**Joseba Larratxe**

Laguntzaileak:

**Nafarroako  
Mendialdeko  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEAK**

## ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

## HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzrietako IKA Euskaltegia.  
Arretxea 22, 31770 Lesaka.  
[bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus)

Malerrekako IKA Euskaltegia.  
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.  
[malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)

